
HAURREN MINBIZIA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

1990-2012

Visitación de Castro⁽¹⁾, M^a Cres Tobalina⁽¹⁾, Nerea Larrañaga^(1,2), Joseba Bidaurrezaga⁽¹⁾, Marta de la Cruz⁽¹⁾, Arantza Lopez de Munain⁽³⁾, Manu Errezola⁽³⁾

-
- (1) Osasun Publikoaren Zuzendaritza
 - (2) Epidemiologiaren eta Osasun Publikoaren SIBZ (CIBERESP)
 - (3) Osasun Plangintza, Ebaluazio eta Antolamenduko Zuzendaritza

LABURPENA

Azterketa honek Euskadiko Minbiziaren Erregistroan 1990etik 2012ra bitartean erregistratutako haurren minbiziak deskribatzen ditu. Haurren minbizitzat hartu dira 15 urtetik beherako haurrei diagnostikatutako tumore gaiztoak. Datuak Heriotza Erregistroko 1991etik 2013ra bitarteko datuekin konparatu dira. Hona hemen datu nagusiak:

INTZIDENTZIA

- 1992tik 2012ra bitartean (bi urteak barne) haurren 1.032 minbizi-kasu erregistratu ziren.
- Euskal Autonomia Erkidegoan, 15 urtetik beherako haurren minbiziaren intzidentzia milioiko 156,6 kasukoa izan zen.
- Kasuen % 59 (180/miloi) mutilei zegokien, eta % 41 (132,8/miloi), berriz, neskei.
- Intzidentzia aldatu egiten da adinaren arabera. Hala, 1 urtetik beherakoei dagokienez, intzidentzia 268,8/miloi zen; 10 eta 14 urte bitartekoei dagokienez, ostera, 133,9/miloi.
- Intzidentzia-datuak Espainiakoak baino pixka bat handiagoak dira, baina ez dago alde handirik.
- Intzidentzia-joera egonkor mantendu zen aldi horretan (1990-2012). Urteko aldaketaren ehunekoa -% 0,7koa izan zen, (-% 1,1 eta % 0,5 arteko konfiantza-tarteaz).
- Hona hemen haurren tumoreen banaketa talde nagusien arabera:
 - % 46 tumore hematologikoak
 - % 16 nerbio-sistema zentralako tumoreak
 - % 38 beste tumore solido batzuk; ohikoenak dira, besteak beste, neuroblastomak, hezurretako tumoreak, ehun bigunen sarkomak eta giltzurruneko tumoreak.
- Diagnostiko-taldeen arabera, ikusi da leuzemiek gora egin dutela, eta, linfomak nahiz nerbio-sistema zentralako tumoreek, berriz, behera. Linfomen kasuan, hautemandako beherakada % 0,2 eta % 3,5 bitartekoa da urtean, eta nabarmentzeko modukoa da estatistikei dagokienez.
-

HERIOTZA-TASA

- 1991etik 2013ra bitartean 15 urtetik beherako 211 adingabe hil ziren EAEn, hau da:
- 32,1 hildako milioi bakoitzeko.
- Hildakoen % 70 (139) haurrak ziren.
- Hildakoen % 5,3 1 urte baino gutxiagoko adingabeak ziren; 12 hildako.
- Tumore mota hilgarrienak leuzemiak (% 35, 3), NSZeko tumoreak (% 25), hezurretako tumoreak (% 8,5) eta linfomak (% 8,1) izan ziren.
- Minbiziagatiko heriotza-tasa nabarmen jaitsi da ikertutako aldian. Urteko aldaketa-ehunekoa % 0,1 eta % 3,4 bitartekoa izan zen.
- Nabarmengarria da ikertutako aldian leuzemia zela medio hildakoen beherakada: % 2tik % 8ra urtean.

BIZIRAUPENA

1999tik 2009ra bitartean diagnostikatutako kasuen datuak.

- % 87,8ko biziraupena urte bat igarota
- % 75,7ko biziraupena bost urte igarota
 - Biziraupenak 5 urte igarota
 - Biziraupenik txikiena NSZeko tumoreei (% 60 bost urtera) eta hezurretako tumoreei dagokie.
 - Biziraupenik handiena, % 100 bost urte igarota, erretinoblastomei dagokie.
 - % 90eko biziraupena tumore epitelialen eta giltzurruneko tumoreen kasuan
 - % 80ko biziraupena gainerako tumoreen kasuan
 - Adinaren arabera, 1 urte baino gutxiagokoei dagokienez, % 80 eta % 75 gainerako adinei dagokienez. Urte bateko adingabeen kasuan ohikoak dira biziraupen handiko tumoreak, hala nola neuroblastomak, erretinoblastomak, giltzurruneko tumoreak eta tumore epitelialak.
 - Biziraupenak gora egin du ikertutako aldian,
 - % 72an 1990 eta 1999 bitartean, eta % 79an 2000-2009 bitartean (biziraupena 5 urtera); hobekuntza nabaria da estatistikoki: log Rank: 0,01
 - Hobekuntza, batez ere, tumore hematologikoei, leuzemieiei eta linfomeiei dagokienez egon zen.
 - Biziraupen-datuak Espainiakoen antzekoak izan ziren (EUROCORE-5).

Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratutako haurren minbizien intzidentzia-, heriotza- eta biziraupen-tasak gainerako herrialde garatuen tasen antzekoak dira.

SARRERA

Haurren tumore gaiztoak dira gaixotasunagatiko lehenengo heriotza-kausa bizitzako lehenengo urtetik aurrera, 1 urtetik 14 urtera bitarteko haurren artean. Hautzaroan diagnostikatzen diren minbizien ehunekoa guztira diagnostikatzen diren minbizien %1 baino gutxiago bada ere, gaixotasunak inpaktu handia sortzen du familiengan eta osasun publikoko arazo larria da.

Minbizi-erregistroen zeregina patologia hori zaintzea da funtsean, intzidentzia eta bilakaera ezagutzeko, eta, biziraupenaren azterketaren bidez, tratamenduko aurrerapenak aintzat hartzeko. Espainian populazioaren minbizi-erregistroak daude Albaceten, Asturiasen, Kanarietan, Valentziako Erkidegoan, Cuencan, Ciudad Realen, Gironan, Granadan, Errioxan, Mallorcan, Murtzian, Nafarroan, Euskadin eta Tarragonan. Halaber, ospitale-erregistroa dago, Espainiako Haurren Tumoreen Erregistroa (RNTI-SEHOP). Euskadiko Minbiziaren Erregistroa (RCEME) populazioan oinarritzen da, 1986an sortu zen, eta % 100etik gertuko estaldura du.

Biziraupena minbizi motaren arabera da, eta laguntza-kalitatearen adierazlerik onena.

Minbiziaren intzidentziaren eta biziraupenaren inguruko datuak argitaratu dira munduan, Europan eta Espainian. Txosten honetan eskuragarri dauden daturik berrienak aurkezten dira, EAEko haurren minbiziaren intzidentziari, heriotza-tasari eta biziraupenari dagokienez.

METODOA

Gertatutako kasuen informazio-iturria Euskadiko Minbiziaren Erregistroa (RCEME) da. Minbizi-erregistro hori populazioan oinarritzen da, 30 urte daramatza lanean eta estaldura handia eta kalitate-adierazle bikainak ditu. Aztertutako azken bost urteetan, mikroskopio bidez egiaztatutako tumoreen ehunekoa 96,3 izan zen, eta informazio-iturri gisa heriotza-estatistikako buletina baino ez duten kasuena 0,5 izan zen.

Heriotza-tasa aztertzeko, informazio-iturria EAEko Heriotza Erregistroa da.

Erreferentziazko populazioa EAEn bizi diren 15 urtetik beherakoek osatzen dute. 2011n egindako azkeneko erroldaren arabera, Euskadiko populazioaren % 13,7k (297.665) 15 urte baino gutxiago zituen. Erabilitako arriskuko populazioa EUSTATen (Euskal Estatistika Erakundea) bidez lortu da. Tasak kalkulatzeko, 1991eko, 1996ko, 2001eko, 2006ko eta 2011ko erroldak erabili dira, errolda arteko urteetarako horien interpolazioak, eta 2012. eta 2013. urteetarako estrapolazio lineala.

Jaso beharreko kasu bat da tumore gaizto bat, edozein kokapenetakoa, 1990etik 2012ra bitartean EAEn bizi zen 0-14 urte bitarteko haur bati diagnostikatu. 1990 eta 2012 bitartean gertatutako haurren minbizi-kasuak jaso dira, bai eta 1991-2013 bitarteko heriotza-tasa ere. 1990-2009 bitartean diagnostikatutako minbizien biziraupenerako, gutxienez, 5 urteko jarraipenarekin, 2014. urtera arte.

Onkologiarako Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren (ICD-O) bigarren eta hirugarren bertsioak erabili ziren, tumoreak kodifikatzeko sistema gisa; eta *International Classification of Childhood Cancer third edition* (ICCC-3) delakoaren hirugarren edizioa erabili zen intzidentziaren eta biziraupenaren azterketan jasotako diagnostikoen taldeak zehazteko. Sailkapen horretan 12 diagnostiko talde nagusi daude, eta horiek 47 azpitaldetan banatzen dira. 16 azpitalde horiek

zatiketa gehiago badituzte ere, kasu kopuru txikia dela eta, txosten honetan ez ditugu azkeneko azpitalde horiek aztertu. Heriotza-kasuak CIE-9-ren bidez kodifikatu ziren 1998ra arte, eta CIE-10-ren bidez 1999tik aurrera.

Minbizia haurrengan gaixotasun arraroa denez, intzidentzia- eta heriotza-tasak kalkulatzeko 1.000.000 pertsona / urte erreferentzia hartu da. Bilakaera aztertzeko, Joinpoint izeneko erregresio-metodoa erabili da: eredu horrek urteko aldaketa-ehunekoa (PCA) eman digu; halaber, sakabanatze-diagrama eman digu erregresio-zuzenarekin, elkartze-puntuekin (joinpoint) lotutako trazu linealen bidez. Horren bidez, joerak aldaketa nabariak dituen unea identifikatzeko aukera dugu, aldaketarik badago. Intzidentzia tumore motaren, sexuaren, adin-taldearen eta denboraren arabera aztertu da. Tasa estandarizatuak kalkulatzeko, metodo zuzena erabili da, eta munduko populazioa hartu da erreferentziazko populazio gisa, hain zuzen, konparaketak ematen dituzten herrialdeek gehien erabilitako populazioa da eta. Intzidentzia 1990-2012 bitartean aztertu da, eta heriotza-tasa 1991-2013 bitartean.

Biziraupena aztertzeko, 1990-2009 bitartean diagnostikatutako kasuen jarraipena egin da 2014ko abenduaren 31ra arte. Horrek esan nahi du tumore guztien jarraipena egiten dela, gutxienez, 5 urtez. Autopsian diagnostikatu diren kasuak baztertu dira, baita Heriotza Estatistikako Buletinean jasotakoak ere. Azkenean, 892 kasuko kohortea dugu, eta horien bidez, behatutako biziraupena kalkulatu egiten da diagnostikoa egin eta urte batera, 3 urtera eta 5 urtera, Kaplan-Meieren metodoaren bidez. Uste da bizitzaren lehenengo urteetan ikusitako biziraupena biziraupen erlatiboaren antzekoa dela; izan ere, adin horietan beste kausa batzuegatik hiltzeko arriskuak oso urriak dira. Biziraupen-balioespenaren fidagarritasuna kasu kopuruarekin lotuta dago oso. Kasu kopurua txikia denean, besteak beste, ausazko aldaketen, *casemix*aren osaeraren eta konfiantza-tarteen ondorioz, sarritan ezin dira interpretatu biziraupenaren emaitzak. Hori dela eta, ez dira biziraupen-kalkulurik egin kohorteetako kasuen kopurua 15 baino txikiagoa izan denean. Biziraupenaren konfiantza-tartearen gehieneko mugak 100ean eten dira kopuru hori gainditu duenean. Bilakaera aztertzeko, biziraupena bost urteka (1990-1994, 1995-1999, 2000-2004, 2005-2009) eta hamar urteka (1990-1999 eta 2000-2009) erkatu da.

Intzidentziako, heriotza-tasako eta biziraupeneko datuak beste herrialde batzuek argitaratutako datuekin erkatzen dira.

Estatistika-analisia egiteko, SPSSren 21. bertsioa eta *Joinpoint Regresion Program, Version 4.2.0-april-2015* erabili dira.

EMAITZAK


MINBIZIAREN INTZIDENTZIA HAURTZAROAN (0-14 URTE)

MAIZTASUN ERLATIBOAK DIAGNOSTIKO-TALDEEN ETA ADINAREN ARABERA


Azterketako aldian, 1990-2012 bitartean, 1.032 minbizi diagnostikatu ziren 0-14 bitarteko haurrengan, eta urteko batezbestekoa 45 kasu izan zen. Urte bat baino gutxiagokoen artean, nerbio-sistema periferikoko (NSP) tumoreek guztizkoaren % 40 osatu dute, eta, horien artean, neuroblastomak % 90 osatu du. 5 urtetik beherakoen kasuan, leuzemia da tumorerik ohikoena (% 41), eta NSZeko tumore gaiztoak datoz gero (% 17). 5 eta 9 urte bitartean, ohikoenak dira leuzemia (% 34), NSZeko tumoreak (% 24) eta linfomak (% 15). 10-14 bitarteko adin-taldean, leuzemiek eta linfomak guztizkoaren % 50 osatzen dute. Adin-talde horrek izan du hezurretako tumoreen (% 16) eta ehun bigunen sarkomaren (% 10) eraginik handiena.

1. IRUDIA. DIAGNOSTIKO-TALDE NAGUSIEN (ICCC-3) MAIZTASUN ERLATIBOAK ADIN-TALDEKA. EAE. RCEME. 1990-2012.


1 URTETIK BEHERAKOAK (K=113)




1-4 URTE BITARTEKOAK (K=364)



5-9 URTE BITARTEKOAK (K=236)



10-14 URTE BITARTEKOAK (K=319)



MAIZTASUN ERLATIBOAK DIAGNOSTIKO-TALDEEN ETA SEXUAREN ARABERA

1. taulak tumore guztiak jasotzen ditu, diagnostiko-talde eta -azpitaldeen arabera eta aldi osoan; baita diagnostiko-talde bakoitzaren maiztasun absolutu eta erlatiboa sexu bakoitzerako, eta tumore bakoitzerako maskulinitasun-indizea ere.

1. TAULA. HAURREN TUMOREEN MAIZTASUN ABSOLUTUA ETA ERLATIBOA (1-14 URTE BITARTEAN), DIAGNOSTIKO-TALDE ETA -AZPITALDEEN ETA MASKULINITASUN-INDIZEAREN ARABERA. RCME.EAE. 1990-2012.

DIAGNOSTIKO-TALDEAK		MUTILAK		NESKAK		GUZTIRA		G/E
		K	%	K	%	K	%	
I	LEUZEMIAK	197	32,5	123	28,9	320	31,0	1,6
IA	I(A) LEUZEMIA LINFOIDEA	153	77,7	94	76,4	247	77,2	1,6
IB	I(B) LEUZEMIA MIELOIDE AKUTUA	22	11,2	19	15,4	41	12,8	1,2
IC	I(C) GAIX. LINFOUGALKOR KRONIKOA	2	1,0	0	0,0	2	0,6	
ID	I(D) SMD ETA BESTELAKO GAIX. LINFOUGALKORRAK	4	2,0	0	0,0	4	1,3	
IE	I(E) BESTELAKO LEUZEMIAK ETA ZEHAZTU GABEAK	16	8,1	10	8,1	26	8,1	1,6
II	LINFOMAK	113	18,6	39	9,2	152	14,7	2,9
IIA	II(A) HODGKIN LINFOMA	36	31,9	14	35,9	50	32,9	2,6
IIB	II(B) EZ-HODGKIN LINFOMA	23	20,4	9	23,1	32	21,1	2,6
IIC	II(C) BURKITT-EN LINFOMA	44	38,9	5	12,8	49	32,2	8,8
IID	II(D) NEOPLASIA LINFOERRETIKULARRAK	6	5,3	6	15,4	12	7,9	1,0
IIE	II(E) LINFOMA ZEHAZTU GABEAK	4	3,5	5	12,8	9	5,9	0,8
III	NSZEKO TUMORE GAIZTOAK	93	15,3	75	17,6	168	16,3	1,2
IIIA	III(A) EPDENDIMOMA ETA T. PLEXU KOROIDEOETAN	9	9,7	6	8,0	15	8,9	1,5
IIIB	III(B) ASTROZITOMA	24	25,8	22	29,3	46	27,4	1,1
IIIC	III(C) KRANIO ETA BIZKARREZURRAREN BARRUKO T. ENBRIONARIOA	33	35,5	25	33,3	58	34,5	1,3
IIID	III(D) BESTE GLIOMA BATZUK	12	12,9	8	10,7	20	11,9	1,5
IIIE	III(E) BERARIAZKO BESTE BATZUK	1	1,1	1	1,3	2	1,2	1,0
IIIF	III(F) ZEHAZTU GABEKO BESTE BATZUK	14	15,1	13	17,3	27	16,1	1,1
IV	NSPKO TUMOREAK	48	7,9	43	10,1	91	8,8	1,1
IVA	IV(A) NEUROBLASTOMA	46	95,8	38	40,3	84	92,3	1,2
IVB	IV(B) NSPKO BESTE TUMORE BATZUK	2	4,2	5	7,3	7	7,7	0,4
V	ERRETINOBLASTOMAK	13	2,1	10	2,4	23	2,2	1,3
VI	GILTZURRUNEKOAK	20	3,3	28	6,6	48	4,7	0,7
VI A	VI(A) WILMS	18	90,0	27	30,6	45	93,8	0,7
VI B	VI(B) GILTZURRUNEKO KARTZIONOMAK	1	5,0	0	3,6	1	2,1	
VI C	VI(C) ZEHAZTU GABEKO BESTE BATZUK	1	5,0	1	4,6	2	4,2	1,0
VII	HEPATIKOAK	9	1,5	5	1,2	14	1,4	1,8
VII A	VII(A) HEPATOBLASTOMAK	6	66,7	4	80,0	10	71,4	1,5
VII B	VII(B) KARTZIONOMA HEPATIKOAK	3	33,3	1	20,0	4	28,6	3,0
VIII	HEZURRETAKOAK	43	7,1	29	6,8	72	7,0	1,5
VIII A	VIII(A) OSTEOSARKOMAK	17	39,5	16	19,4	33	45,8	1,1
VIII C	VIII(C) EWING	25	58,1	13	16,4	38	52,8	1,9
VIII E	VIII(E) ZEHAZTU GABEKO BESTE BATZUK	1	2,3	0	3,4	1	1,4	
IX	EHUN BIGUNETAKO SARKOMA	51	8,4	30	7,1	81	7,8	1,7
IX A	IX(A) ERRABDOMIOSARKOMA	19	37,3	21	70,0	40	49,4	0,9
IX B	IX(B) FIBROSARKOMAK	5	9,8	1	3,3	6	7,4	5,0
IX D	IX(C) KAPOSIEN SARKOMA	22	43,1	5	16,7	27	33,3	4,4
IX E	IX(D,E) ZEHAZTUTAKO BESTE BATZUK	5	9,8	3	10,0	8	9,9	1,7
X	HOZI-ZELULAK	8	1,3	18	4,2	26	2,5	0,4
X A	X(A) KRANIO BARNEKOAK	1	12,5	3	16,7	4	15,4	0,3
X B	X(B) KRANIO KANPOKOAK	1	12,5	5	27,8	6	23,1	0,2
X C	X(C) GONADAL GAIZTOAK	6	75,0	9	50,0	15	57,7	0,7
X D	X(E) BESTELAKOAK ETA ZEHAZTU GABEAK	0	0,0	1	5,6	1	3,8	0,0
XI	TUMORE EPIHELIALAK	11	1,8	23	5,4	34	3,3	0,5
XI A	XI(A) KARTZINOMA ADRENOKORTIKALA	0	0,0	3	13,0	3	8,8	0,0
XI B	XI(B) TIROIDEOAK	4	36,4	7	30,4	11	32,4	0,6
XI C	XI(C) SUDUR-FARINGEETAKOAK	1	9,1	0	0,0	1	2,9	
XI D	XI(D) MELANOMAK	4	36,4	5	21,7	9	26,5	0,8
XI F	XI(F) BESTELAKOAK ETA ZEHAZTU GABEAK	2	18,2	8	34,8	10	29,4	0,3
XII	BESTELAKOAK ETA ZEHAZTU GABEAK	1	0,2	2	0,5	3	0,3	0,5
XII A	XII(A) ZEHAZTUTAKO BESTE BATZUK	0	0,0	2	100,0	2	66,7	0,0
XII B	XII(B) ZEHAZTU GABEKO BESTE BATZUK	1	100,0	0	0,0	1	33,3	
GUZTIRA		607		425		1032		1,4

ADINAREN ARABERAKO INTZIDENTZIA

Haurren minbizien % 46 bizitzako lehenengo bost urteetan diagnostikatu da, eta, urte batetik beherakoen kasuan, guztizkoaren % 11. Lehenengo bi urteetan neskak dira kaltetuenak, eta hortik aurrera, ia adin guztietan, mutilak dira kaltetuenak. (2. irudia)

2. IRUDIA. HAURREN MINBIZIA. INTZIDENTZIA-TASA ESPEZIFIKOA (MILIOIKA) ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. RCEME. EAE. 1990-2012.



2. taulak islatzen duenez, intzidentzia-tasarik altuenak 1 eta 5 urteko adingabeei dagokie (1-4 urte), 268,8/miloi eta 219,8/miloi, hurrenez hurren. Adin-talde horietan intzidentzia-tasa altuenak tumore enbrionarioek, nerbio-sistema periferikoko tumoreek (neuroblastomak), erretinoblastomak, giltzurruneko tumoreek eta tumore hepatikoak osatzen dituzte. Linfomak eta hezurretako tumoreek tasarik altuenak osatzen dituzte 10-14 urte bitarteko adin-taldeari dagokionez. Leuzemiek adin guztietan eragiten dute, eta intzidentziarik altuena 1-4 urte bitarteko adin-taldean dute. NSZeko tumoreek, berriz, tasarik txikiena dute urte bateko adingabeei dagokienez.


2 TAULA. HAURREN MINBIZIA. DIAGNOSTIKO-TALDE NAGUSIEN KOPURUA ETA INTZIDENTZIA-TASA GORDINA (MILIOIKA) ADIN-TALDEEN ARABERA. RCEME. EAE. 1990-2012.

Diagnostiko-taldeak		guztira		< urte bat		1-4 urte		5-9 urte		10-14	
		K	Tasa	K	Tasa	K	Tasa	K	Tasa	K	Tasa
I	Leuzemiak	320	48,7	16	38,1	151	91,2	80	37,8	73	30,6
II	Linfomak	152	23,1	6	14,3	29	17,5	35	16,6	82	34,4
III.	NSZeko tumore gaiztoak	168	25,6	6	14,3	61	36,8	56	26,5	45	18,9
IV.	NSPko tumoreak	91	13,8	45	107,1	36	21,7	9	4,3	1	0,4
V.	Erretinoblastomak	23	3,5	9	21,4	13	7,9	1	0,5	0	0
VI.	Giltzurrunekoak	48	7,3	9	21,4	30	18,1	7	3,3	2	0,8
VII.	Hepatikoak	14	2,1	3	7,1	7	4,2	3	1,4	1	0,4
VIII.	Hezurretakoak	72	11	0	0	6	3,6	16	7,6	50	21
IX.	Ehun bigunetako	81	12,3	6	14,3	26	15,7	16	7,6	33	13,9
X	Hози-zelulak	26	4	9	21,4	4	2,4	6	2,8	7	2,9
XI.	Tumore epitelialak	34	5,2	3	7,1	0	0	6	2,8	25	10,5
XII.	Bestelakoak eta zehaztu	3	0,5	1	2,4	1	0,6	1	0,5	0	0,0
Guztira		1032	156,	113	268,8	36	219,	236	111,6	319	133,9

SEXUAREN ARABERAKO INTZIDENTZIA

Haurren tumoreak ohikoagoak dira mutilengan (maskulinitasun-indizea G/E: 1,4), baina minbizi mota ezberdinen maiztasuna aldatu egiten da sexuaren arabera. Ranking orokorrean, leuzemiak dira tumore gaizto ohikoenak bi sexuei dagokienez. NSZeko eta NSPko tumoreak 2. eta 3. postuan daude neskei dagokienez, linfomen aurretik; horiek 2. tumorerik ohikoenak dira mutilengan. Tumore guztien intzidentzia-tasak handiagoak dira mutilengan, hozi-zelulen tumoreei, zelula epitelialen tumoreei eta giltzurruneko tumoreei dagokienez izan ezik; azken horien kopuru absolutua eta tasak handiagoak dira nesken kasuan (3. irudia).

3. IRUDIA. DIAGNOSTIKO-TALDE NAGUSIEN INTZIDENTZIA-TASA SEXUAREN ARABERA. RCEME. EAE.1990-2012




3 TAULA. HAURREN MINBIZIA. DIAGNOSTIKO-TALDE NAGUSIEN
KOPURUA ETA INTZIDENTZIA-TASA GORDINA (MILIOIKA) SEXUAREN
ARABERA. RCEME. EAE. 1990-2012

Diagnostic-taldeak		guztira		Mutilak		Neskak	
		K	Tasa	K	Tasa	K	Tasa
I	Leuzemiak	320	48,7	197	58,4	123	38,4
II	Linfomak	152	23,1	113	33,5	39	12,2
III.	NSZeko tumore gaiztoak	168	25,6	93	27,6	75	23,4
IV.	NSPko tumoreak	91	13,8	48	14,2	43	13,4
V.	Erretinoblastomak	23	3,5	13	3,9	10	3,1
VI.	Giltzurrunekoak	48	7,3	20	5,9	28	8,8
VII.	Hepatikoak	14	2,1	9	2,7	5	1,6
VIII.	Hezurretakoak	72	11	43	12,8	29	9,1
IX.	Ehun bigunetako sarkoma	81	12,3	51	15,1	30	9,4
X	Hoziz-zelulak	26	4	8	2,4	18	5,6
XI.	Tumore epitelialak	34	5,2	11	3,3	23	7,2
XII.	Bestelakoak eta zehaztu gabeak	3	0,5	1	0,3	2	0,6
Guztira		1032	157	607	180,1	425	132,8

ALDIAREN ARABERAKO INTZIDENTZIA. BILAKAERA

Aldi osoan, intzidentzia-tasak handiagoak izan dira mutilengan, 1,4ko maskulinitasun-indizearekin; % 59 (607) mutilak ziren eta % 41 (425) neskak. 1.000.000 pertsonako urteko intzidentzia-tasak 180,0 eta 132,8 izan ziren mutilengan eta neskengan, hurrenez hurren. Aldi osoan, intzidentziak bilakaera egonkorra izan du (PCA: - 0,3; KT % 95: - 1,1; 0,5), eta ez da alderik egon sexuaren arabera, eta aldi osoan egondako aldaketak nagusiki kasu kopuru txikiarengatik gertatu dira.

4. IRUDIA. HAURREN MINBIZIA. TASA GORDINAK (MILIOI BAKOITZEKO) ETA EGOKITZEA (JOINPOINT). RCEME.EAE. 1990-2012.



**4 TAULA. HAURREN MINBIZIA. DIAGNOSTIKO-TALDE NAGUSIEN
KOPURUA ETA INTZIDENTZIA-TASA GORDINA (MILIOIKA) ALDIEN
ARABERA. RCME. EAE. 1990-2012**


Diagnostiko-taldeak		guztira		1990-1994		1995-1999		2000-2004		2005-2009		2010-12	
		K	Tasa	K	Tasa	K	Tasa	K	Tasa	K	Tasa	K	Tasa
I	Leuzemiak	320	48,7	75	44	51	37,5	66	52,4	81	59,9	47	52,6
II	Linfomak	152	23,1	43	25,2	36	26,4	32	25,4	24	17,7	17	19
III.	NSZeko tumore gaiztoak	168	25,6	55	32,2	37	27,2	22	17,5	41	30,3	13	14,6
IV.	NSPko tumoreak	91	13,8	14	8,2	20	14,7	23	18,3	23	17	11	12,3
V.	Erretinoblastomak	23	3,5	6	3,5	7	5,1	3	2,4	4	3	3	3,4
VI.	Giltzurrunekoak	48	7,3	7	4,1	11	8,1	12	9,5	12	8,9	4,84	6,7
VII.	Hepatikoak	14	2,1	5	2,9	2	1,5	0	0	6	4,4	1	1,1
VIII.	Hezurretakoak	72	11	25	14,7	17	12,5	10	7,9	14	10,3	6	6,7
IX.	Ehun bigunetako sarkoma	81	12,3	22	12,9	13	9,5	17	13,5	16	11,8	13	14,6
X	Hoziz-zelulak	26	4	6	3,5	5	3,7	7	5,6	7	5,2	1	1,1
XI.	Tumore epitelialak	34	5,2	8	4,7	5	3,7	6	4,8	10	7,4	5	5,6
XII.	Bestelakoak eta zehaztu gabeak	3	0,5	1	0,6	0	0	0	0	1	0,7	1	1,1
Guztira		1032	156,6	267	156,5	204	149,9	198	157,3	239	176,6	124	138,8

LEUZEMIAK


Leuzemiak tumore ohikoenak dira haurren, bai nesketan bai mutiletan. 1990-2012 bitartean, 320 diagnostikatu ziren, eta urteko batezbestekoa 14 kasu izan zen (maila: 7-18). Tumore hori haurren minbiziaren guztizkoaren % 31 da. % 62 (197) mutilei zegokien, 1,6ko maskulinitasun-indizearekin.

Azterketa-aldi osoan tasa globala 48,7 kasukoa izan zen milioi bakoitzeko, 58,4 mutilei dagokienez eta 38,4 neskei dagokienez. Intzidentziak aldaketa handiak izan ditu azterketa-aldi osoan, eta urtean % 1,32 handitu da, garrantzia estatistikorik gabe.

5. IRUDIA. LEUZEMIA. INTZIDENTZIA-TASA GORDINA ETA EGOKITZEA (JOINPOINT) EAE. 1990-2012.



6. IRUDIA. INTZIDENTZIA-TASA ESPEZIFIKOAK ADINAREN ARABERA, LLA ETA LMA. EAE. 1990-2012.



Hautzaroan leuzemia linfoblastiko akutua (LLA) eta leuzemia mieloide akutua (LMA) dira leuzemia mota ohikoenak. Bi leuzemia horiek taldearen guztizkoaren % 90 dira, hau da, LLAek % 77 osatzen dute, eta, LMAek, aldiz, % 13. Leuzemia linfougalkor kronikoa ez da oso ohikoa


hautzaroan, ez da % 1era iristen (2 kasu). Irudiak erakusten duen bezala, LLak intzidentzia-tontor bat du 2 eta 4 urte bitartean, baina LMaren kasuan, ez da joera berdina ikusi.

LINFOMAK


1990-2012 bitartean, 152 diagnostikatu ziren, hau da, haurren minbiziaren guztizkoaren % 14,7. Horietatik, % 74 (113) haurrak ziren, 2,9ko maskulinitasun-tasarekin, Burkitt linfomaren kasuan hirukoiztu egiten dena. Azterketa-aldi osoan tasa globala 23,1 kasukoa izan zen milioi bakoitzeko, 33,5 mutilei dagokienez eta 12,2 neskei dagokienez.

Intzidentziak beherakada nabarmena izan du bi sexuetan, urtean % 1,9 (PCA:-1,87; KT % 95:-3,5;-0,2). Linfomen % 33 Hodgkin Linfomak dira, % 53, berriz, ez-Hodgkin Linfomak (EHL), Burkitt-en linfoma barne. Hodgkin linfomak ohikoagoak dira 10-14 urte bitartean, eta ez-Hodgkin linfomak bi intzidentzia-tontor dituzte, 4-6 eta 12-14 urte bitartean.

7. IRUDIA. LINFOMAK. INTZIDENTZIA-TASA GORDINA ETA EGOKITZEA (JOINPOINT) EAE. 1990-2012.




8. IRUDIA. INTZIDENTZIA-TASA ESPEZIFIKOAK ADINAREN ARABERA, HL ETA EHL (BURKITT-EN LINFOMA BARNE. 1990-2012). EAE




NERBIO-SISTEMA ZENTRALEKO TUMORE GAIZTOAK

NSZeko tumoreak, maiztasunari dagokionez, tumoreen bigarren taldea dira nesken artean eta hirugarrena mutilen artean. Aztertutako aldian, 168 kasu diagnostikatu ziren, eta horietatik % 55 (93) umeak ziren, maskulinitasun-indizea: 1,2. Urteko batezbestekoa 7/urte izan zen (maila: 13-1). Oro har, joerak behera egin du, aztertutako aldaketak gorabehera.

9. FIGURA. NSZeko TUMORE GAIZTOAK. INTZIDENTZIA-TASA GORDINA ETA EGOKITZEA (JOINPOINT). EAE. 1990-2012.



10. IRUDIA. INTZIDENTZIA-TASA ESPEZIFIKOAK ADINAREN ARABERA, NSZeko TUMOREENA. 1990-2012. EAE



NSZeko hiru tumore ohikoenek (ependimoma, astrozitoma eta meduloblastoma) taldeko tumoreen guztizkoaren % 71 osatzen dute. Ependimoma hiruetatik ezohikoena da (% 8,9), baina urtebete baino gutxiagoko haurretan du eraginik handiena. Meduloblastoma lehena da maiztasunari dagokionez (% 34,5), eta adin guztietan diagnostikatzen da, jaiotzetik. Azkenik, astrozitoma (% 27,4) lehen urtetik aurrera adin guztietan diagnostikatzen da, eta 1-4 urte bitarteko taldeari eragiten dio gehien.

BESTE TUMORE SOLIDO BATZUK.

Nerbio Sistema Periferikoko (SNP) tumoreak hirugarren ohikoenak dira nesketan eta bosgarrenak mutiletan, eta haurtzaroko tumore gaiztoen % 8,8 dira. Azterketa-aldian 91 tumore diagnostikatu ziren, 48 umeetan (% 53) 1,1eko maskulinitasun-indizearekin. Urteko batezbestekoa 4 kasu izan zen (maila: 1-7). Intzidentzia egonkor mantendu da 1990-2012 bitartean, % 0,48ko PCArekin (KT % 95: -2,7, 3,8). Neuroblastoma tumore enbrionario nagusienetako bat da, eta talde horretako tumoreen % 92 osatzen du; % 50 urtebete baino gutxiagoko haurrei diagnostikatu zitzaizkien, eta tumore ohikoena da bizitzako lehen urtean zehar.

Bestalde, 23 erretinoblastoma diagnostikatu ziren, 35 kasu/miloi bakoitzeko, eta ez zen diagnostikorik egon 5 urtetik gorakoan artean.


48 giltzurrun-tumore erregistratu ziren 5,9 eta 8,8 kasuko tasarekin mutil eta neska milioi bakoitzeko, hurrenez hurren; maskulinitasun-indizea E/G: 1,3 izan zen. Tumore horiek 7. postua dute maiztasunaren rankingean, bi sexuei dagokienez. Wilms tumoreak % 94 osatzen du, eta ez da kasurik diagnostikatu 7 urtetik gorakoan artean.

Horrez gain, erregistratutako 14 tumore hepatoetarik 10 hepatoblastomak ziren eta 4 kartzinoma hepatoak, 1,56eko tasarekin neskei dagokienez eta 2,13ko tasarekin mutilei dagokienez. % 70k 2 urte edo gutxiago zituen.


Hezurretako 72 tumore diagnostikatu ziren (% 60) haurrengan. Maskulinitasun-indizea G/E: 1,5. Osteosarkoma eta Ewing tumorea talde horretako diagnostikoen % 99 dira, eta biak ohikoagoak dira mutilengan; Ewing tumorea (G/E: 1,1) eta osteosarkoma (G/E: 1,9).

Ehun biguneko 81 sarkoma diagnostikatu ziren, umeengan 51 (% 60), maskulinitasun-indizea: 1,7, eta milioi bakoitzeko 12 kasu biztanleko aldiko tasa gordinarekin. Rabdomiosarkoma eta Kaposi sarkoma ehun biguna duten sarkomen % 83 dira, baina Kaposi sarkomak gehiago eragiten die mutilei (G/E:4,4). Tumore horiek adin guztietan diagnostikatzen dira; errabdomiosarkomak 1 eta 4 urte bitarteko intzidentzia-tontorra du, eta Kaposi sarkomak, berriz, 10-14 urte bitarteko umeen artean du tasarik altuena.

11. IRUDIA. INTZIDENTZIA-TASA ESPEZIFIKOAK ADINAREN ARABERA, EHUN BIGUNETAKO SARKOMENA. 1990-2012. EAE



12. IRUDIA. INTZIDENTZIA-TASAK ADINAREN ARABERA, ERRETINOBLASTOMENAK, NEUROBLASTOMENAK, ETA HEZURRETAKO ZEIN GILTZURRUNEKO TUMOREENAK. 1990-2012. EAE




Diagnostikatutako 26 hozi-zelulen tumoreen artean, 18 neskei dagozkie. Bestalde, barrabileko hozi-zelulen tumoreak 9 urte baino gutxiagoko mutiletan diagnostikatu ziren, eta obulutegikoak, aldez, lehen urtetik aurrera, baina gehieneko intzidentzia 10-14 urte bitartekoenganakoa da.

Erregistratutako 34 epitelio-tumoreetatik, 23 neskei zegozkien, eta 11 mutilei. Tasa globala honakoa izan da milioi bakoitzeko: 7,19 neskengan eta 3,26 mutilengan. Ohikoenak tumore tiroideoak dira, 11 (% 32,4), bai eta tumore melanomak ere, 9 (% 26,5). Tiroideen % 91 eta melanomen % 67 10-14 urtekoen artean diagnostikatu ziren.

INTZIDENTZIA. BESTE HERRIALDEEKIN EGINDAKO ALDERAKETA.


Jarraian, 2003-2006 aldian haurren minbiziak izandako intzidentzia aurkezten da; izan ere, aldi horretan EUREG-i datuak ematen dizkieten herrialde guztien datuak daude. Alemaniako, Italiako, Portugaleko eta Espainiako datuek zenbait erregistroren multzoa ordezkatzeko dute; eta beste herrialde batzuk erregistro bakar baten bidez ordezkatu dira. Hauek dira EUREG-en datuak dituzten Espainiako 2003-2006 urteetako erregistroak: Albacete, Asturias, Euskadi, Girona, Granada eta Murtzia.

13. irudia. Haurren minbizia. Europako intzidentzia-tasa estandarizatuak (milioi bakoitzeko). (Erreferentziatzko populazioa: munduko populazioa). EUREG. 2003-2006



Munduko biztanleriarekin bat etortzen diren haurren minbiziaren tasa estandarizatuak (Espainiako sei minbizi-erregistroren 2000-2005 urteetako datuen bidez) ez dute alde handirik. Euskadiren tasa 164/miloi da (KT % 95: 143,4; 184,6), eta Errioxak baino ez du gainditzen (169/miloi). Tarragonak antzeko tasa du: 163/miloi (KT % 95: 128,9; 197,1). Aldeak nabariak dira estatistikoki, gure tasak Granadako erregistroko tasekin konparatuz gero (122/miloi; KT % 95: 97,7; 146,3).

14. IRUDIA. HAURREN MINBIZIA. ESPAINIAKO SEI MINBIZI-ERREGISTROREN BIDEZ ESTANDARIZATUTAKO (MUNDUKO ERREFERENTZIAZKO POPULAZIOA) INTZIDENTZIA-TASA. (ERREFERENTZIAZKO POPULAZIOA: MUNDUKO POPULAZIOA). EUREG. 2000-2005



5. taulan talde diagnostiko batzuen intzidentzia-tasak aurkezten dira. EAEn umeen tumoreen intzidentzia, Espainian eta Frantzian ematen direnen antzekoak dira.

5 TAULA. KASUAK, TASA GORDINA ETA ESTANDARIZATUA TUMOREAREN DIAGNOSTIKO-TALDEAREN ARABERA EAEN: 1990-2012. ESPAINIA: 1983-2002 ETA 2000-2012. FRANTZIA: 2000-2004. IRLANDA: 1994-2011

		Aldia	Kasua	TK	TEW	KT % 95
I-Leuzemiak	EAE	1990-2012	320	48,69	52,29	46,4
	Espainia (1)	1983-2002	1691	41,83	45,93	43,6
	Espainia (2)	2000-2012	1455	46,0	47,0	44,5
	Frantzia	2000-2004			45,9	42,6
	Irlanda	1994-2011			47,7	44,2
II-Linfomak	EAE	1990-2012	152	23,13	21,86	18,33
